




bbke



Hornitzaileen kode etikoa





Aurkibidea

01 Sarrera

02 Balioak

03 Jokabide-arauak

04 Onarpena eta betetzea

01. Sarrera

BBKren helburua Fundazioaren hazkunde jasangarrirako **jokabide- eta etika-estandar gorenak sustatzea** da, balio korporatiboetan eta printzipio etikoetan oinarrituta.

Horrela, Fundazioak, sortu zenetik, konpromiso etiko sendoa adierazi du, nahitaez bete beharreko arauak eta ikuskapen- eta kontrol-prozedura eraginkorrak ezarriz. Kode etiko honek **BBK Fundazioarekin harremana ezartzen duten erakunde hornitzaileetako**, eta interes-talde guztietako, **pertsonen jardunerako gida eta erreferentzia** gisa balio izatea nahi du.

Fundazioak bere balio-katearen zati garrantzitsutzat jotzen ditu bere enpresa hornitzaileak bere helburuak lortzeko, eta, beraz, konfiantzan eta elkarrekiko onuran oinarritutako harremanak ezarri nahi ditu haiekin.



01. Sarrera

MISIOA

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa eta Fundación BBK Fundazioa (aurrerantzean, biak "Fundazioa" edo "BBK") lanean ari gara Bizkaiaren **garapen sozioekonomikoan, ongizatean eta aukera-berdintasunean** laguntzeko, **lurraldean eragin positiboa sortzen duten ekintzekin, lehiakortasun jasangarriko ereduaren eta inbertsio arduratsuaren bidez, Gizarte Ekintzaren hazkundera bermatzeko.**

IKUSPEGIA

Gure ikuspegia da Bizkaian **erreferentziazko erakundera** izatea, konprometitu eta Gizarte Ekintzaren **inpaktuagatik** eta berriro Gizarteari itzultzeko Ondarearen **kudeaketa arduratsuagatik aintzatetsia.**

HELBURUA

BBKren hornitzailearen Kode Etikoa **BBKren Kode Etikoaren luzapen** gisa ulertzen da, eta haren helburua da BBK-k enpresa hornitzaileekin izan behar duen harremanaren gardentasuna eta konfiantza bermatzeko jarraibideak eta

jokabide-arauak ezartzea, betiere BBKren enpresa-kulturarekin eta araudia betetzeko sistemarekin bat etorriz, **bai eta aplikatzekoa den araudiarekin ere.**

BBK-k, gainera, **estandar horiek aplikatzea** sustatzen du, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2030 Agendan zehaztutako **Garapen Jasangarrirako Helburuen**, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren eta Nazio Batuen Mundu Itunaren (BBK horri atxikita dago) arabera.

Printzipio orokor gisa, **etika, gizarte eta ingurumenaren arloko praktika edo jardunbide onenekin eta gobernu korporatibo onarekin bat etorriz lan egiten duten hornitzaileekin egingo da** BBKn kontratazioa. **Era berean, hornitzaileek oinarrizko giza eta lan-eskubideak errespetatuko dituzte beren jardueran, eta horiek beren balio-katera hedatzeko lan egingo dute.**

BBK-k espero du kode honetan ezarritako printzipioak **hornitzaileei eta haien balio-kateei zabaltzea eta aplikatzea**, eta azken horiek beren gain hartzea kodea betetzen dela bermatzeko beharrezko politikak eta prozedurak.

APLIKAZIO-EREMUA

Kode hau BBK Fundazioarekin harremana ezartzen duten **erakunde hornitzaile** guztiei aplikatuko zaie, haien nazionalitatea eta zerbitzuak emateko lekua edozein izanda ere. Kode honetan ezarritako balio, printzipio eta arauak ezagutu, errespetatu eta bete beharko dituzte.

Hemen jasotzen diren printzipioak **proportzionaltasun-printzipioarekin** bat etorriko dira eta koherenteak izango dira; beraz, printzipio horiek aplikatzean, kontuan hartu beharko dira zerbitzuak ematen dituzten hornitzaileek garatutako jardueren tamaina, barne-antolamendua, izaera, eskala eta konplexutasuna.

Behar bezalako arretari, ebaluazioari eta aldizka gainbegiratzeari buruzko neurriak aplikatu ahal izango ditu BBK-k bere hornitzaileen eta lotutako hirugarrenen gainean, zertutako jarduerari dagokion arrisku-maila, jurisdikzioa, informazio sentikorra eskuratzea, administrazio publikoekiko elkarreragina edo compliancearen ikuspegitik garrantzitsuak diren beste inguruabar batzuk kontuan hartuta.

Horrela, BBK-k, bere jardueren bidez, **gizarteari ekarpen positiboa** egiteko konpromisoa hartzen du, eta bere hornitzaileek eta **balio-kateko kideek** printzipio horiek bere jardueran aplikatuz laguntzea espero du.

Dokumentu honetan deskribatzen denak **ez ditu kontratuen betekizun espezifikoak ordeztan**, baizik eta osatu egiten ditu. Kontratu-termino bat zorrotzagoa bada, ezarritako kontratu-baldintzak bete beharko ditu hornitzaileak.

AZPIKONTRATAZIOA:

Hornitzailearen eta BBKren arteko kontratuak berariaz baimentzen ez badu (baldintza orokorren, kontratuen eta abarren bidez), hornitzaileak ezin izango du azpikontratistarik erabili. Aukera hori aurreikusten den kasuetan, hornitzaileek ziurtatu behar dute beren **balio-kateak** BBKri produktuak edo zerbitzuak hornitzen dizkionean, azken horrek **Kode honetan** ezarritako estandarrei buruz **ondo informatuta dagoela, ulertu eta betetzen dituela**. Hori lortzeko, hornitzaileek egokitzen jotzen dituzten neurriak ezarri behar dituzte, beren balio-katea gainbegiratzeko eta BBKren izen onean edo segurtasunean izan dezakeen edozein eragin negatibo arintzeko. Gainera, **BBK-k kontrol bereziak ezarri ahal izango ditu** balizko arrisku espezifikoak hautematen diren kasuetan (gorabidean dauden herrialdeak, etab.).

Hornitzaileek beren balio-katean aplikatutako gainbegiratzeko eta kontrol-neurrien ebidentzia dokumental nahikoa gorde beharko dute, eta BBKri eman beharko diote, kode hau betetzen dela egiaztatzeko aski beharrezkoa denean.

02. Balioak

Kultura partekatua izateak, etorkizunerako anbizioarekin eta balio komunetan oinarritua, BBKren bertuteak eta gaitasunak indartzen ditu, eta enpresa hornitzaile, erakunde laguntzaile, pertsona onuradun eta, oro har, Bizkai-ko gizartearentzat balioa sortzen laguntzen du.

BBKtik ongizatea eta berdintasuna indartuko dituen sare bat bultzatzen dugu, pertsonen loraldia eta oparotasuna bultzatzeko, balio soziala sortuz.



BBK-k ongizatea eta berdintasuna bultzatuko dituen **sare** bat sustatzen du, pertsonen **loraldia** eta oparotasuna bultzatzeko, **balio soziala** sortuz.

SAREA GARA

Pertsonen bizi-kalitatea hobetze aldera, eragile desberdinak inplikatzeko ditugulako tresnak, baliabideak eta iraunkortasun-bokazioa duten proiektuak diseinatu eta eskaintzeko, erronka komunak konpontzeko elkarlanean aritzen diren komunitate indartsu eta konektatuen eraikuntza sustatuz.



BERDINTASUNA GARA

Pertsonen **ahalmen indibiduala** gartzeko eta gauzatzeko lan egiten dugulako. Ikasteko, hazteko eta bizitzari aurre egiteko duten gaitasuna sustatu nahi dugu, behar dituzten tresna eta bitarteko guztiekin.

Oztopoak ezabatzea eta zerbitzu, aukera eta baliabideak berdintasunez eskuratzea bermatu nahi dugu.



LORALDIA GARA

Bizkaiko gizartearen **ongizatearekin eta oparotasunarekin** konprometitu ta gaudelako.

Herritarrek oinarrizko premiak aseta izan ditzaten eta hazten eta aurrera egiten lagunduko dieten **gaitasunak eta trebetasunak garatu** ditzaten laguntzen dugulako.



BALIO SOZIALA GARA

Inbertitu egiten dugulako eta Gizarteari –gure jendeari, ekonomia-ri, ingurumenari– **ekarpenak egiten dizkioten proiektuak bultzatzen** ditugulako.

Gizarte-balioa gara, **kontzientzia kolektiboa**, sentikorragoa eta kohesio-natuagoa, **sortzen eta indartzen** dugulako.



SUSTRAITZEA GARA

Gure **lurraldearekin** lotura dugulako, garenaren sustrai edo erroetatik. **Gure kulturarekin, gure jendearekin, gure lurrarekin** eta gauzak **egiteko moduarekin**.



INBERTSIOA GARA

Gure lurraldean etorkizun oparoago baten alde egiten duten konpainietan **inbertitzeko zorro dibertsifikatu** baten bidez laguntzen dugulako.

Gardentasuna eta zorroztasuna gara, eta gure lidergoak beste erakunde batzuk inspiratzea gura dugu arlo ekonomikotik haratago lagundu dezaten.



Eta
gizabanakoarentzat,
gizartearentzat **eta**
lurraldearentzat
inpaktua eraginez
eta balioa sortuz
egiten dugu.

Gizabanakoarentzat

Inklusioa eta aukera-, zerbitzu- eta baliabide-berdintasuna bermatuz, helburu esanguratsuak bilatzen lagunduz, eta ikasteko, hazteko eta gure garaiko erronketara egokitzeko duen gaitasuna lagunduz.



Gizartearentzat

Partekatutako balioak identifikatuz, guztiekin hitz eginez, ekimenak bultzatuz eta erronka komunitate indartsu eta konektatuen eraikuntza sustatuz.



Lurraldearentzat

Garapen iraunkor edo jasangarria bultzatuz, etengabeko berrikuntza eta ikaskuntza sustatuz, adierazpen kultural eta artistikoen garrantzia aitortuz.



KONPROMISOarekin, irauteko bokazioarekin eta epe luzerako begiradarekin.

SUSTRAITZEarekin, gure kulturarekin lotzen gaituzten loturak indartuz.

SENTSIBILITATEarekin, pertsonengatik eta pertsonen alde lan egiten dugulako.

03. Jokabide-arauak

Fundazioan, bere ondarea kudeatzen eta zaintzen duen eragile ekonomiko-finantzarioa izan nahi dugu, biztanleko Espainiako estatuan dagoen Gizarte Ekintzarik garrantzitsuena gauzatzeko; eragin sozial eta ekonomiko garrantzitsua sortzeari lotutako marka-nortasuna ere sendotu gura dugu, Bizkaiko gizarteak aurrean dituen erronka berriei irtenbide iraunkor edo jasangarriak emateko.

Gure jarduera guztiek helburu hori lortzera bideratuta egon beharko dute, eta, betiere, jarraian zehazten diren **jokabide-arauak bete** beharko dituzte. Fundazioak gauza bera espero du hornitzaileengandik eta haien baliokateengandik.



03. Jokabide-arauak

LEGERIA BETETZEA ETA GOBERNANTZA SISTEMA

Funtsezko printzipio eta beste edozein aginduren baldintzatzaile gisa, BBK-k konpromisoa hartzen du, eta neurri berean eskatzen die bere hornitzaileei, beren jarduera gauzatzen duten **esparru eta jurisdikzio guztietan aplikagarri diren lege eta araudien arabera jarduteko**.

BBK-k hornitzaileengandik espero du beren eginkizunetan jardun zilegi, etiko eta profesionalki arduratsua izatea, horretarako barne-zabalkunde egokia eta Kode honetan aurreikusitako jokabide-arauak **betetzeko konpromisoa ziurtatuz**.

DELITUEN PREBENTZIOA

Delituak Prebenitzeko Politikaren printzipioekin konpromiso irmoa duela adierazten du BBK-k, eta bereziki, hirugarrenetik (besteak beste hornitzaile, erabiltzaile eta agintariekiko) harremanetan legez kontrakotzat edo irregulartzat jotzen diren praktikak ez egiteko edo jokabideak ez izateko. Era berean, BBK-k Prebentzio Planak izateko eskatzen die hornitzaileei.

IRUZURRAREN PREBENTZIOA

BBKren ustez, enpresan **gardentasuna, etika eta zintzotasuna** funtsezko printzipioak dira merkataritza-harreman iraunkor edo jasangarriak izateko.

BBK-k espero du, beraz, hornitzaileek beren funtzio edo eginkizunetan kalitate etiko eta moral handia izatea, arau juridiko eta etikoak betetzea, zintzotasun, objektibotasun, kontu-emate eta zuzentasunaren printzipioei atxikitzea eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka daudela erakustea.

DATU PERTSONALAK BABESTEA

Hornitzaileek datuak babesteari, pribatutasunari eta informazioaren segurtasunari buruzko **legeak**, jarduten duten herrialdeetan aplikatzekoak direnak, **bete beharko** dituzte, bai eta **haien eta BBKren arteko harremana arautzen duten klausulak ere**.

BBK-k hornitzaileei ematen dizkien izaera pertsonaleko datu guztiak lortzeko egon zen helburura egokituta tratatu beharko dira beti eta une bakoitzean indarrean dagoen Datuen Babesari buruzko araudiaren babesean.

ANIZTASUNA ETA TRATU ONA

BBK-k pertsona guztien duintasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza eta intimitatea errespetatzeko eskubidea aitortzen ditu.

Berariaz debekatzen da abusu, etsaitasun, diskriminazio, jazarpen, abusu edo tratu desagokiko jokabide-mota oro, genero, kolore, arraza, sexu-joera, sinesmen, ideologia politiko, filiazio, erlijio, gizarte-jatorri, desgaitasun, nazionalitate, adin edo zuzenbideak babestutako beste edozein inguruabarrengatik, **bai bere erakundean, bai harekin elkarreraginean diharduen edozein erakundetan, bereziki enpresa hornitzaileetan.**

Ondorioz, **BBK-k espero du hornitzaileek diskriminazio-praktika oro baztertzea eta langile edo beharginak errespetuz eta duintasunez tratatzea, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa sustatuko dituen eta jarrera diskriminatzailearik onartuko ez duen lan-giroa ziurtatuz.**

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNA

Lanean **segurtasun eta osasun fisiko eta mentala** funtsezko alderdia da, eta dagozkien araudiak zorrotz bete behar dira.

Horren haritik, laneko **osasunari eta higieneari buruzko arauak** zorrotz bete behar dituzte BBKren hornitzaileek, lan-ingurune segurua eta osasungarria sustatzeko.

Hornitzaileek beren behargin edo langileei **prestakuntza** eta beharrezko baliabideak emango dizkiete beren zereginak modu eraginkorrean egin ditzaten, eta beharrezko jarduerak egingo dituzte langileek beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean istripu, lesio eta esposizio-arriskua murrizteko.

Enpresa hornitzaileak gerta litezkeen balizko **larrialdi**-egoerak detektatu eta eba-luatuko ditu lantokian, eta halakoen eragina minimizatuko du.

BIKAINASUNA

BBKren hornitzaileek entregatu eta emandako produktuek eta zerbitzuek legez eta kontratu bidez ezarritako kalitate, fidagarritasun eta segurtasuneko estandarrek eta aldagaiak bete beharko dituzte, kalitate/prezio erlazio egokienera eta hitzartutako prezio eta entrega-epeetara egokituz.

Hornitzaileek beren langileen gaitasuna eta prestakuntza bermatu beharko dituzte, kontratatutako produktua entregatzea edo zerbitzua ematea ahalik eta kalitate-, fidagarritasun- eta segurtasun-bermerik handienarekin egin dadin.

Fundazioak irizpide erabat profesionalak aplikatuko ditu, eta bertan lan egiten dutenei eskatuko dizkie seriotasuna, dedikazioa, ondo egindako lanerako bokazioa, erantzukizuna eta leialtasuna.

INFORMAZIO KONFIDENTZIALA

Hornitzaileek bermatu beharko dute beren plantillako pertsonak BBKri buruzko informazioa –pribilegiatu, konfidentzial, erreserbatu eta/edo sekretu gisa sailkatu daitekeena– eskura dutenek ez dutela informazio hori emango eta, are gutxiago, norberaren onurarako erabiliko.

Informazio konfidentziala honako hau da:

Izaera publikokoa ez izateagatik BBKren jarduerari bere zabaltasun handienez eragiten dion oro (erakunde onuradun, merkatu, finantza-datu, metodo edo prozesuen xehetasunak).

Hirugarrenek BBKri emandako informazioa, konfidentziasun-konpromisoen mende dagoena.

Informazio hori zabaltzeari dagokionez, bi kasu bereizi behar ditugu:

- Isilpeko informazioa zabaltzea beharrezkoa bada jarduera bat gauzatzeko, kontuz ibili eta ahalik eta neurri gehien hartu beharko dira isilpeko informazio hori babesteko.
- Informazio hori hirugarren pertsona edo/eta erakunde bati dagokionean, informazio hori, soilik eta edozein kasutan, beraren onespenezkin zabaldu ahal izango da.

Datuak BBKrekiko kontratu-harremana indarrean dagoen bitartean gorduko dira, eta, ondoren, legez ezarritako epean, kontratu-harremanetik erator daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko.

INTERES-GATAZKAK

BBKn ez dugu onartzen gure hornitzaileekin interes-gatazkarik izatea. Interes-gatazka dago egoera pertsonal, familiar, adiskidetasun edo kanpoko beste edozein zirkunstantziatako egoera batek enpresa-erabaki edo -harreman batean esku hartzen duten pertsonen objektibotasun profesionalean eragina izan dezakeenean.

Horren haritik, honako hauek jotzen dira gatazka eragin dezaketen interestzat:

- Norberaren interesak.
- Familia-interesak, hor sartuta gure ezkontidearenak edo antzeko afektibitate-harremanean bizikide dugunarenak eta odol-ahaidetasuneko laugarren mailarainoko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideenak.
- Auziak ebatzi barik ditugun pertsonenak.
- Adiskidetasun mina edo ageriko etsaitasuna dugun pertsonenak.
- Edozein motatako lan- edo lanbide-harremana dugun edo gure izendapenaren aurreko bi urteetan izan dugun pertsona juridikoenak edo erakunde pribatuenak.

- Pertsona juridikoenak edo erakunde pribatuenak, horiekin edozein motatako lan- edo lanbide-harremana baldin badute aurretik aipaturiko senideek, betiere harreman horrek zuzendaritza-, aholkularitza- edo administrazio-eginkizunak betetzea badakar.

Lehia osasuntsuari edo beren enpresa-harremanaren garapen normal eta objektiboari kalte egin diezaioketen **interes-gatazkak prebenitu beharko dituzte** BBK-k eta bere hornitzaileek, eta, plantillako pertsonaren batek interes-gatazka izan badezake, enpresa hornitzailearen jardueraren independentzia eta aplikatzekoa den araudiari erabat lotzea bermatuko duten mekanismoak mantendu beharko dituzte.

Interes-gatazka posibleei dagokienez, BBKren talde profesionalak eta bere hornitzaileek honako printzipio orokor hauek errespetatu beharko dituzte:

- **Independentzia:** une oro profesionaltasunez eta modu independentean jardutea norberaren edo hirugarrenen interesekiko.
- **Komunikazioa:** erabakia hartu aurretik sortutako interes-gatazken berri ematea idatziz Araudia Betetzeko Batzordeari, helbide elektroniko honetan: cumplimientonormativo@bbk.eus

Adierazpenean, honako hau adierazi beharko dugu:

- Interes-gatazkak pertsonalki edo lotutako pertsona baten bidez eragiten digun, hura identifikatuz, hala badagokio.
 - Interes-gatazka eragiten duen egoera, hala badagokio erabakiaren xedea eta baldintza nagusiak zehaztuz.
 - Gutxi gorabeherako zenbatekoa edo ebaluazio ekonomikoa.
 - Fundazioko zein sailekin edo pertsonarekin hasi diren harremanak.
- **Abstentzioa:** Araudia Betetzeko Batzordeak aztertu egin beharko ditu jasotako adierazpena eta interes-gatazka eragin duen egoera, eta erabaki bat hartu beharko du erabakian esku hartzeari edo eragiteari uko egiteko dugun beharrianari buruz, bai eta erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartzeari eta gatazka horri eragiten dion informazio konfidentziala eskuratzeari buruz ere.

Araudia Betetzeko Batzordeak abstentzioa erabakitzen badu, hierarkian gora-goko organoa edo horren ordezkari den pertsona izango da interes-gatazkari buruzko erabakia hartzen parte hartuko duena.

Alde horretatik, Patronatuko kideren bat interes-gatazkan sartuta baldin badago, Patronatuko gainerako kideek hartuko dute interes-gatazkari buruzko erabakia.

OPARIAK ETA GONBIDAPENAK

BBK kode etikoak **oparien eta gonbidapenen politikari** buruzko jokabide-arau edo jarraibide bat du, **bere hornitzaileek errespetatu beharko dutena**, ohiko erabilerak, sozialak edo adeitasunezkoak, gainditzen dituzten **opariak saihestuz**, baita mesedeak edo baldintza onuragarrietan egindako zerbitzuak ere, horien **helburua** baldin bada beren harreman komertzial, profesional edo administratiboetan modu desegokian **eragitea**.

ZERGEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOKO BETETZE-MAILA

Zilegi ez den jardunbide oro saihestuko da, esan gura badu legez kontra zerga-ordainketa saihestea eskudun den Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kaltetan.

SEGURTASUN INFORMATIKOA

BBK nahiz bere hornitzaileak informazioaren teknologien bidez egin daitezkeen delituak prebenitu eta kontrolatzeaz arduratuko dira, eta, bereziki, ez dira jarduera hauek onartuko:

- Lehiakideen, hornitzaileen edo beste edozein enpresa edo erakunde publiko edo pribaturen sistema informatikoetara baimen barik sartzea.
- Aktibo materialetan edo ez-materialetan kalteak eragin ditzaketen birusak edo programak zabaltzea.
- Datu-baseak baimenik gabe lagatzea.
- Datu pertsonal erreserbatuak baimen barik lortzea edo lagatzea.
- Haur-pornografia.
- Beste edozein motatako kalte informatikoak, sabotajeak edo datuak edo besteren sistema informatiko batean informazioa aldatze hutsa barne.

Behar ez bezalako atzerapenik gabe, hornitzaileek BBKri jakinarazi beharko diote, Fundazioari lotutako sistemei, datuei edo zerbitzuei zuzenean edo zeharka eragin diezaiekeen zibersegurtasun, baimenik gabeko sarbide, informazio-galera edo zaurgarritasuneko edozein gorabehera

INGURUMENA ERRESPETATZEA ETA BABESTEA

BBK-k konpromisoa hartzen du ingurumenari kalterik txikiena eginez gauzatzeko bere jarduera, ahal den neurrian ekosistemetan izan dezakeen eragin negatiboa murriztuz eta konpentsatuz.

BBK-k hornitzaileengandik espero du **ingurumena babesteko etengabeko konpromisoari eustea** eta aplikatzekoa den **legerian** ezarritako **estandarrak eta eskakizunak betetzea**.

Hornitzaileek **prebentzio-ikuspegia** hartu beharko dute, eta ingurumen-erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak sustatu beharko dituzte, beren jarduera, instalazio, ekipamendu eta lan-metodoetan eraginkortasuna hobetzeko.

Hornitzaileek sistema eraginkorrak ezarri beharko dituzte beren jardueretatik eratorritako **ingurumen-inpaktu esanguratsuenak identifikatu, kontrolatu eta arintzeko**. Ingurumen-kalteak gertatuz gero, aurreko egoera lehengoratzeko behar diren baliabide guztiak erabili beharko dituzte.

GIZA ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK

BBK-k konpromisoa hartzen du honako hauetan jasotako Oinarrizko Eskubideak eta Askatasun Publikoak erabat errespetatzeko: 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, baita Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, 1978ko Espainiako Konstituzioan eta gure lurraldean aitortutako oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babesteko eta zaintzeko gainerako araudiak zehaztutako laneko oinarrizko printzipio eta eskubideak ere.

BBK-k, beraz, hornitzaileen **konpromisoa** eskatzen du, **baita bere balio-katearena ere, honako balio hauetan:**

- Nazioartean aitortutako oinarrizko **giza eskubideak** babestea eta errespetatzea, eta eskubide horiek beren balio-katera helaraztea.
- Aplikatu beharreko **lege eta arau guztiak, tokikoak eta estatukoak**, betetzea, hala nola soldatak, ordutegiak, langileen osasuna eta segurtasuna baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko printzipio eta hitzarmenak ere, jarduera edozein herrialdetan egiten dutela ere.

- Lanean eta enpleguan **diskriminaziorik eza** bermatzea, arraza, nazionalitate, jatorri edo gizarte-egoera, adin, genero, sexu-orientazio, ideologia, erlijio, desgaitasun edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozein arrazoi dela medio. Beren antolaketan beharrezko neurriak hartzea beharrezko edo nahitaezko lan-mota oro ezabatzeko, hau da, edozein zigorraren mehatxupean pertsona bati eskatzen zaion lan edo zerbitzu oro ezabatzeko.
- Beren antolaketan beharrezko neurriak hartzea **beharrezko** edo nahitaezko **lan-mota** oro ezabatzeko, hau da, edozein zigorraren mehatxupean pertsona bati eskatzen zaion lan edo zerbitzu oro ezabatzeko.
- Beren erakundean **haurren eskulana** erabiltzeari uko egitea, aplikatu beharreko legeriaren arabera kontratatzeke gutxieneko adinak errespetatuz, langileen adina egiaztatzeke mekanismo egoki eta fidagarriak izango dituztelarik.
- Langileak esplotatzeko eta beharrezko lanera bultzatzeko helburuarekin **mehatxua, indarra edo edozein larderia-mota**, errepresaliak edo bote-re-abusua dakarren edozein praktika eragozteak.
- Elkartzeko askatasuna, **askatasun sindikala eta negoziazio kolektiborako eskubidea** aitortzea, beren jarduera garatzen duten herrialdean indarrean dagoen legeriaren arabera.

04. Onartzea eta betetzea

BBK Fundazioak bere hornitzaileek eta balio-kateak Kode Etiko honetan xedatutakoa betetzen dutela zainduko du, eta edozein urraketaren aurrean horren arabera jardungo du.



04. Onartzea eta betetzea

Kode hau nahitaez bete behar dute BBKren hornitzaileek, eta erakundeak egindako esleipen guztiei erantsiko zaie.

BBK-k hornitzaileen artean jakinarazi eta zabalduko du Kode Etiko honen edukia, eta hornitzaileen erantzukizuna izango da Kodea plantillaren artean behar bezala zabaltzea, batez ere BBKrentzat lan egiten duten beharginen artean. Era berean, Kodearen printzipioak beren balio-kate osoan bultzatzen ahaleginduko dira.

Hornitzaileak Kode hau ez betetzeak ondorioak izan ditzake BBKrekiko kontratu-harremanean. Ez-betetzearen larritasunaren arabera, ondorio horiek ohar-tarazpenetik hasi eta kontratua aldeztu aurretik amaitzerainokoak izan daitezke, aplikatzekoak diren beste lege- edo administrazio-ekintza batzuk alde batera utzi barik.

BBK-k beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-mekanismoak ezarriko ditu hornitzaileek Kode hau betetzeari dagokionez.

BBK-k informazioa, dokumentazioa edo arrazoizko ebidentziak eskatu ahal izango dizkie hornitzaileei, Kode honetan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, bai eta lotutako arriskuarekiko proportziozkoak diren egiaztapen- edo gainbegiratze-jarduerak egin ere.

BBK-k hainbat komunikazio-bide ditu, barnekoak zein kanpokoak, komunikazio-kultura irekia, arina eta gardena sustatzeko. Informatzaileek era anonimoan ere eman ahal izango dute informazioa:

- Idatziz, telematikoki, BBKren web-orri korporatiboan (bbk.eus) dagoen formularioaren bidez.
- Idatziz, fisikoki, Bilboko 19-21 Kale Nagusiko 1. eta 7. solairuetan dauden postontzi fisikoen bidez (48001).
- Ahoz, Araudia Betearazteko arduradunari jakinarazita. BBK-k komunikazio edo kontsulta horiek ahoz egiteko aukera eskaintzen du, Barneko Informazio Sistemaren arduradunarekin aurrez aurreko bilera eginez, edo, hala badagokio, hark kudeaketa eskuordetzen dionarekin.

BBK-k babes egokia bermatzen die informatzaileei, jasan ditzaketen errepresalien aurrean, eta bere informazio-kultura eta zintzotasun-azpiegitura indartzen ditu Barneko Informazio Sistema ezarriz, interes publikorako mehatxuak prebenitzeko eta antzemateko mekanismo gisa.

BBK-k aldian-aldian berrikusiko ditu Hornitzaileen Kode Etiko honen eraginkortasuna eta egokitasuna, kontuan hartuta arau-aldaketak, arriskuen ebaluazioak, antzemandako gorabeherak, auditorien emaitzak, barne-ikerketak eta beste edozein inguruabar garrantzitsu, betetze-sistemaren etengabeko hobekuntza sustatuz.

